


Lasarte-Oriako Udala

***IRAUNKORTASUNERAKO
EKINTZA PLANAREN
EBALUAKETA***

Lasarte-Oria, 2008ko ekaina



1.- SARRERA





2- IRAUNKORTASUNERAKO PLANAREN GARAPENAREN EGOERA

Lasarte-Oriako planak 53 ekintza dauzka, 12 lerro estrategikotan eta 27 ekintza programatan banatuta. Ekintza horiek lauzpabost urtetarako aurreikusitako ziren. Horiek pasatuta komenigarria ikusten zen ebaluaketa berri bat egitea eta helburuak eta ekintzak birplanteatzea.

Ekintza zazpi multzo handitan bil daitezke, izaeraren arabera. Honelako ekintzak bereiz daitezke:

- Sentsibilizazioak; jasangarritasun-kontzeptuak eta guztiok batera eta koordinatuta aritzeko beharra zabaltzeko eta kontzeptu horiek aintzat hartuta hezteko.
- araudia sartzekoak edo aldatzekoak; erabilerak eta jarduerak arautzeko eta araudia eguneratzeko.
- Aldaketa-ekintzei eta -jarrerei mesede egiteko pizgarri ekonomikoak islatzen dituztenak.
- Hornidurako eta azpiegiturak egokitzekoak
- Udaleko errealitatearen alderdian iraunkortasun-irizpideak sartzekoak.
- Azterketak eta planak proposatzen dituztenak; zenbait alderdian eragina izan nahi yugula aintzat hartuta, alderdi horiek hobeto ezagutzeko.
- Kudeaketa; esate baterako, ingurumen-kontrolekoak, izapide-prozedurakoak eta udalaz gaindiko esparruetan jarduerak egitea eskatzekoak.

Orain arte 49 ekintza jarri dira martxan, hau da, onartutakoen %92,45, eta horretarako 113 jarduera eraman dira aurrera. Jardueretako batzuek gastuaren exekuzioa eskatzen dute (Oria ibaiaren ondoko pasealekua amaitzea, irisgarritasun plana gauzatzea, etab.) eta beste batzuk gestioari dagozkionak dira (N-1 errepideko zarata murrizteko neurriak eskatzea, garraio publikoaren intermodalitatearengatik lan egitea, hondakin-uren kolektorearen eraikuntza bizkortzea...). Plana onartu zenetik orain arte, akzio hauen exekuzioaren gastua **20.615.879,25 €** da.

Planaren ekintza gehienak ildo hauei dagozkie: Komunikazio kanalen hobekuntza, Asoziazionismoaren sustapena eta ingurumenaren inguruko hezkuntzaren indartzea (%16,98), Hiriko mugikortasunaren eta irisgarritasunaren hobekuntza (%15,09), Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu jasangarria (%11,32) eta Kultura eta kirola indartu eta sustatu (%11,32).

Dagoeneko egindako ekintza gehienak ildo hauei dagozkie: Hiriko mugikortasunaren eta irisgarritasunaren hobekuntza (%19,46), Komunikazio kanalen hobekuntza, Asoziazionismoaren sustapena eta

EKINTZA PLANA EBALUAKETA

2



ingurumenaren inguruko hezkuntzaren indartzea (%16,81), Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu jasangarria (%15,92), Jardueren kontrolaren hobekuntza eta kutsadura eta zarataren kontrako borroka (%9,73).

Ildo estrategikoari dagokion gastuan nabarmentzen da Hiriko mugikortasunaren eta irisgarritasunaren hobekuntza

Datozen orrialdeetan Ekintza Plana aurkezten dugu bere exekuzio gastuarekin. Ikusi daitekeen moduan, kasu batzuetan ez dago gasturik egokituta. Horrela gertatzen da, adibidez, uraren eta hondakinen gestio jasangarriaren ildoekin. Kasu honetan, burutu diren ekintzak gestio mailan izan dira (hondakin-uraren kolektorearen eraikuntza bizkortu, birziklapena sustatu eta hondakin organikoen gaikako bilketa bultzatu). Beste adibide bat da energia aurreztearen eta eraginkortasun energetikoaren ildoak (etxebizitza promozio berrietan ziurtagiri energetikoekin jarraitzea, udal bulegoak eta argiteri publikoa energetikoki ikuskatzea). Azken hauek edo ez dute gasturik suposatzen edo beste entitate batzuek finantzatzen dituzte, kasu honetan Energiaren Euskal Erakundea.



1 Ildo estrategikoa

Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu iraunkorra

8.128.813,37€

P1. LURZORUAREN ANTOLAMENDUA

1. Hirigintzako planei buruzko informazio gehiago. **16.322,24 €**
2. Inguruko udalekin udalerraren mugak negoziatzea, bereziki Donostia eta Usurbilekin. **22.021,72 €**

P2. ETXEBIZITZEN SUSTAPENA

3. BOE-etarako lurak aprobetxatzea.
4. Etxebizitza hutsak alokatzeko programak -BIZIGUNE, esate baterako-zabaltzea eta etxebizitza hutsen okupazioa edo alokairua sustatzea.

P3. HIRI-INGURUNEA HOBETZEA ETA EREMU ANDEATUAK LEHENERATZEA

5. Berdeguneetarako azalera handitzea eta zaintzea. **4.530.577,88 €**
6. Oriaren ibaiertzeko pasealekua amaitzea. **3.559.891,53 €**



2 Ildo estrategikoa **Hiri barruko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea** **9.971.785,58 €**

P4. ZIRKULAZIOAN ETA APARKAMENDUAN ERAGITEA

7. Zirkulazioaren azterketa egitea. **4.832.521,25 €**
8. Txandakako aparkamendua probatzeko saiakera egitea.

P5. GARRAIO PUBLIKOARI LAGUNTZEA

9. Hainbat motatako garraio publikoa bultzatzea.

P6. ORDEZKO GARRAIOBIDEAK BULTZATZEA

10. Bidegorriak jarrito diren aztertzea. **929.787,28 €**
11. Bizikletaren erabilera eta bide-hezkuntza sustatzea. **15.831,96 €**

P7. IRISGARRITASUNA INGURUNE FISIKORA ZABALTZEA

12. Gizarte Zerbitzuetako eraikinetako irisgarritasuna hobetzea. **1.276.475,75 €**
13. Igogailuak jartzeko baimenak errazago bideratzea. **108.180 €**
14. Hainbat urtetan irisgarritasun-plana gauzatzen jarraitzea. **2.808.989,34 €**

3 Ildo estrategikoa **Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra** **0€**

P8. SANEAMENDUAN AURRERA EGITEA

15. Hondakin-urak biltzeko odiaren eraikuntza azkartzea.

P9. ETXEETAKO ETA SALTOKIETAKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAREN KUDEAKETA HOBETZEA

16. Birziklapena bultzatzea, ez etxeetakoa bakarrik, baita taberna eta saltokietakoa ere. Zainaza eta zigorrak.
17. Zabor organikoaren gaikako bilketa bultzatzea eta behar bezala kudeatzea.



4 Ildo estrategikoa **Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea** **0 €**

P10. ENERGIA-ZIURTAPENAK SUSTATZEA , ETA ARGITERIA PUBLIKOA ETA UDAL-BULEGOETAKO ENERGIA-PRESTAZIOAK HOBETZEA

18. Etxebizitzan sustapen berrietan energia-ziurtapenak egiten jarraitzea.
19. Udal-bulegoetako eta argiteria publikoko energia ikuskatzea. Neurri zuzentzaileak hartzea.

5 Ildo estrategikoa **Jardueren kontrola hobetzea eta kutsaduraren eta zarataren** **kontra borrokatzea** **96.754,12 €**

P11. JARDUERA KUTSAGARRIAK ETA ARRISKUKO JARDUERAK KONTROLATZEA

20. Lurzoru kutsatuak aztertzeke eta leheneratzeko hitzarmenarekin jarraitzea.
21. Airearen kalitatea neurtzeko estazio bat jartzeko eskatzea Eusko Jaurlaritzari. **61.104,12 €**

P12. KUTSADURA AKUSTIKOA TXIKITZEKO NEURRIAK EZARTZEA

22. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea neurri zuzentzaileako ezar dístala N-1 errepideko zarata txikitzeke.
23. Kutsadura akustikoari buruzko azterketarekin jarraitzea. **35.650 €**



6 Ildo estrategikoa **Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babeseko programak** **handitzea** **150.823,81€**

P13. HEZKUNTZA-SISTEMAN ERAGITEA

- 24. 0-3 urteko eskola doakoa izan dadin lan egitea. **1.200 €**
- 25. Balioen heziketa sustatzea. **1.200 €**

P14. OSASUN-ARRETA HOBETZEA

- 26. Guardiako farmacia aste osoan edukitzea egunez eta gauez, eta larrialdien zerbitzua aste osora zabaltzea, bai egunez, bai gauez.

P15. GIZARTE-ERANTZUNA ZABALTZEA

- 27. Gizarte-egoera ahuleko taldeei lagunaza handiagoa ematea. **121.863,73€**

P16. GIZARTE-EGOERA AHULENEKO GIZARTEKIN LANKIDETZAN ARITZEA

- 28. Nazioarteko lankidetzan jarduten duten tokiko taldeen berri zabaltzea eta haiei lagunaza ematea. **26.560,08 €**

7 Ildo estrategikoa **Enplegua sustatzea eta dibertsifikazio ekonomikoa** **433.416,35 €**

P17. MERKATARITZARI LAGUNTZEA

- 29. Tokiko merkataritza bultzatzea, PERCO garatuta.
- 30. Saltoki txikiak bultzatzea: oinezkoentzako kaleak egitea, aparkatzeko erraztasunak ematea. **433.416,35€**

P18. ENPLEGUA SORTZEN LAGUNTZEA

- 31. Portu publikoetan gardentasun handiagoa egotea, eta Portu horietan elebitasuna sustatzea.



8 Ildo estrategikoa **Kultura eta kirola sendotzea eta sustatzea** **598.928,86€**

P19. KULTURA-HORNIDUREN ETA –PROGRAMEN OSAGARRIA

- 32. Erakusketa-areto berri baten premia dago, oraingoa ez baitago egoera onean.
- 33. Jendearen partaidetza sustatzea Erico zaindariaren jaiak diseinatzen. **1.000 €**
- 34. Euskal kultura gehiago sustatzea. **15.000 €**
- 35. Memoria historikoa berreskuratzea. **26.000 €**

P20. KIROL-HORNIDURAK EGOKITZEA

- 36. Kiroldegiko egutegia luzatzea eta instalazioak eta hornidurak hobetzea. **471.928,86 €**
- 37. Eskola-kiroleko eta kirol-ludoteketako programen alde egitea. **85.000€**

9 Ildo estrategikoa **Herritarren segurtasuna hobetzea eta babesa larrialdietan** **3.600 €**

P21. HIRITARREN SEGURTASUNA OPTIMIZATZEKO TRESNAK EZARTZEA

- 38. Udaltzaingoaren zerbitzua hobetzea.
- 39. Udaltzaingoarentzako dependentzia egokiak sortzea.

P22. LARRIALDI-EGOERETAN BABESA HOBETZEA

- 40. Ubideetako gainezkabideak garbi edukitzea. **3.600 €**



10 Ildo estrategikoa Hizkuntza-normalizazioa bultzatzea **1.156.569,32 €**

P23. EUSKARA SUSTATZEA

41. Euskararen erabilera sustatzea udalerriko eremu guztietan.
42. Hizkuntza-irizpideak ezartzea zerbitzuak kontratatzeko.
43. Lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea euskararen erabilera sustatzeko.

11 Ildo estrategikoa Komunikazio-kanalak hobetzea, asoziazionismoa bultzatzea eta ingurumen-hezkuntza sustatzea **71.011,84 €**

P24. UDALERRIKO GAI INTERESGARRIAK ZABALTZEA

44. Gizarte Zerbitzuen Sailak zer zerbitzu ematen dituen ezagutaraztea herritarrei. **7.432,14€**
45. Hiri-izurrien informazio-kanpaina.
46. Udalak ziurtatu behar du herritarrei iritsiko zaiela informazio garrantzitsua. **17.795,24€**

P25. ASOZIAZIONISMOA BULTZATZEA

47. Asoziazionismoa bultzatzea.
48. Toki publikoak sustatzea elkarteek erabiltzeko.

P26. INGURUMEN-HEZKUNTZAKO ESKAINTZA FINKATZEA

49. Eskolako Agenda 21 sustatzea. **13.916,00€**
50. Ura aurrezten erakustea. **6.000€**
51. Energia berriztagarriak ezartzeko laguntzen berri ematea eta energia aurrezten erakustea. **17.497,31 €**
52. Hiri-hondakin solidoen arazoari buruzko sentsibilizazio-kanpaina gehiago egitea. **8.371,15€**



12 Ildo estrategikoa

Udal-zerbitzuen kudeaketa iraunkorrerako bidean

4.176 €

P27. UDAL-KUDEAKETAKO TRESNA BERRIAK

53. EKOSKAN bat egitea udaletxean eta gainerako uval-instalazioetan. **4.176€**

EKINTZAK

Guztira 113 ekintza burutu dira Lasarte-Orian Iraunkortasunerako Plana ezartzeko.

Lurraldearen eta etxebizitzaren antolamendu iraunkorra ildoan, pausoak eman dira plan urbanistikoaren inguruan informazio gehiago emateko. Horren adibide da duela gutxi onartu den Hiri-Plangintzako Aholku-Batzordea, izan ere, batzorde horretako partaideetako bat Tokiko Agenda 21eko hiritarren foroak aukeratuko du.

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioari dagokionez, Loidi-Barren eremuan 100 etxebizitza eraikitzeke pausoak ematen hasi dira.

Berdegunak gehitzea lortu da, batetik, Somoto parkearen zabalkundearekin, hiriaren erdian dagoena, eta, bestetik, etorkizunean Plazaola parkea izango denerako lurren erosketarekin. Momentu honetan azalera berdea 322.027,59 m² da, 18 m² biztanleko.

Ibai ondoko pasealekua egiten jarraitu da, Michelin zonaldeko ingurune-berritzearekin, eta dagoeneko onartu da Oriako pabilioien atzeko zatia.

Hiri-mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeari dagokionez, trafikoa lasaitzeko neurriak hartu dira (abiadura gutxitzeko sakanak), kaleak oinezkoentzat jarri dira (Askorena plaza) eta Michelingo garajeak eraiki dira. Gainera, Loidi-Barreneko proiektuaren barne txandakako sistema izango duen aparkalekua martxan jarriko da.



Garraio publikoaren intermodalitatearen alde lan egin da eta zatika egiten ari da ibaiaren ondoko bidegorria, 3 kilometroko luzera izango duena.

Bizikletaren erabilera sustatzen da, bidegorria egiteaz gain, Mugikortasun Iraunkorraren Astean antolatzen diren jardueren bidez.

Villa Mirentxu egokitzean, Udaleko Gizarte Zerbitzuetarako irisgarritasuna erraztu da. Horrez gain, etxebizitza eraikinetan igogailuak jartzeko baimenak ematen dira eta, ildo horretatik jarraituz, igogailuak instalatzeko diru laguntzak erregulatzen dituen ordenantza onartu da.

Irisgarritasun planak aurrera jarraitzen du, Arranbiden eta Adarra plazan eskailera mekanikoak jarrita. Gainera, anbulatorioko bigarren solairuan udal zerbitzuak martxan jartzeko proiektua onartu da eta bertan izango dita Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa, Minusbaliotasun bat duten pertsonentzako Jalgune elkarteak edo Udal Euskaltegia, besteak beste.

Uraren eta hondakinen gestio jasangarrian, hondakin-uren kolektorearen eraikuntza bizkortzeko gestioak egin dira, industriguneetako hondakinen bilketa San Markoseko Mankomunitatera transferitu da (modu horretan hondakinen gaikako bilketa eginez) eta gobernu akordio bat dago hondakin organikoen gaikako bilketa bultzatzeko.

Energia aurreztearen eta eraginkortasun energetikoaren ildorako, ziurtagiri energetikoak eskatzen jarraitzen da udalerrian egiten diren eraikinetan. Horrez gain, Energiaren Euskal Erakundearekin sinatu den hitzarmen baten bidez udalerriko argiteriaren eta eraikinen auditoria energetikoa egiten ari da. Hitzarmen beraren ondorioz informazio kanpainak egiten dira (aurrezte energetikoa, gidatze eraginkorra, eta abar).

Jardueren kontrola hobetzea eta kutsaduraren eta zarataren kontra borrokatzeari dagokionez, kutsatutako lurren jarraipena egiten da lizentzia urbanistikoetan eta jarduera lizentzietan. Gainera, IHOBek egin duen kutsatutako lurren inbentarioaren berrikusketan lagundu da. Kutsadura atmosferikoari dagokionez, airearen kalitatearen Buruntzaldea eskualdeko azterketa egiten ari dira, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Andoaingo, Astigarragako eta Hernaniko Udalekin batera. Azterketa honetarako Antxisu bailaran jarri dute neurketa jarraia egiteko sistema eta hiru hilabetetarako kabina bat Atsobakar auzoan.

N-1 errepidea dela eta udalerriak jasaten duen kutsadura akustikoak etengabe bultzatu du Udala Gipuzkoako Foru Aldundiari zarata murrizteko neurriak eskatzera. Zentzu horretan, lehentasuna duen udalerririk bezala sartu dute Lasarte-Oria Aldundiaren zarataren azterketan. Bestalde, eta behin eta berriro Donostiako Bigarren Ingurubidearekin sortuko den zarata murrizteko eskatu eta gero, Udalaren eta Bidegiren arteko hitzarmen bat lantzen ari da. Hitzarmen horretan jasoko litzateke pantaila akustikoak jartzea aipatutako



errepidearen loturetan (Sasoeta, Goiegi eta Atsobakar). Era berean, Udalak zarataren kontrolerako planarekin aurrera jarraitu du eta etxebizitzaren zonalde berrietan (Oztaran eta Goiegi Ibarbidea) azterketa akustikoak egin ditu zuzenketa neurriak ezartzeko. Lasarte-Oriako zarata maparen eguneratzea ere prestatzen ari dira.

Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babeseko programak handitzeari dagokionez, udal haurreskolako haurrentzako bekak bideratzen dira, balioetan hezteko elkarteei diru laguntzak eman, etxebizitzetarako laguntzak gutxietsitako taldeei eta nazioarteko kooperazioan lan egiten duten taldeekin lan egiten da, adibidez, udalerriko Gobernu Kanpoko Erakundeekin egiten den kooperazio azokaren bidez.

Enpleguaren sustapenak eta dibertsifikazio ekonomikoak batzen ditu kaleak peatonalizatzeko ekintzak, aparkalekuak gehitzea eta Merkataritza Mahaia osatzea, merkataritzaren sektorearekin erlazionatutako ekintzak aztertu eta koordinatzeko.

Kultura eta kirola sendotu eta sustatzeko ekintzak izan dira erakusketa gelak gehitzea (Villa Mirentxu), festen antolakuntza herritarren parte-hartzeari zabaltzea, festetako programan entitateek parte hartzeko diru laguntzak ematea, euskal kultura sustatzea euskal antzerki programazioaren bidez. Horrez gain, *Oria, bizi komunitate bat, lanerako espazio bat* liburua argitaratu da, udalerriko memoria historikoa berreskuratzeko programa berriaren barne.

Kirola sustatzeko, kiroldegiko egutegia zabaldu da eta instalazioak hobetu dira (squash pista berritzea eta tenis pista, bolatokia eta hainbat kirolerako pista berriak udal kirolgunean), Eskola-Kirola programa koordinatzen da eta baita kirol ludoteka ere.

Herritarren segurtasuna eta larrialdietarako babesa hobetzeko, lanpostu berriak sortu dira Udaltzaingoan eta jarraipena egiten zaio Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzaren kompetentzia den ubideen ibilguen garbiketari.

Hizkuntza normalizazioa bultzatzen da Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoaren gestioaren bidez. Gainera elkarlanerako hitzarmenak sinatu dira entitate ezberdinekin euskara sustatzeko helburuarekin (Ttakun, Buruntzaldeako Udalak, eta abar).

Komunikazio kanalak hobetzeak, asoziazionismoa bultzatzeak eta ingurumen-hezkuntza sustatzeak ekintza ugari egitera bideratu du. Besteak beste, Gizarte Zerbitzuen laguntzen programa hedatzea, udal webgunea eguneratu eta dinamizatzea, udal aldizkariaren argitalpena, elkarteentzako espazio publikoak sustatzea (Villa Mirentxu), ingurumen-hezkuntza programak ikastetxeetan, ingurumenarekin sentsibilizatzeko kanpaina tematikoak (uraren aurrezteak, aldaketa klimatikoa, energia berriztagarriak, energia aurrezteak, eta abar).

Azkenik, **udal-zerbitzuen kudeaketa iraunkorrerako bidean**, momentu honetan martxan dagoen udaletxearen eraikinaren Ekoscan bat egin da.